

Merkatuaren-Segmentazioa

Bezeroak enpresa baten bihotza dira. Bezeroak ekonomia funtzionatzeko oso garrantzitsuak dira, enpresa ekoizten duen ondasun eta zerbitzuak kontsumitzen dutelako. Horregatik oso ondo pentsatu behar da zein diren zure produktuaren xede-bezeroa. Gure enpresaren kasuan hurrengoak dira.

Langileak: Lan bat duten pertsonak dira baina konkretuki etxetik kanpo jaten duten langileak eta janaria berotzeko baliabideak (mikrouhina esate baterako) ez dituztenak. Gutxi gora behera 35 eta 60 urte bitartekoak. Askok direnez gure bezero garrantzitsuenak dira. Adibideak bezala garraiolariak eta eraikuntza-langileak izan daitezke.

Mendizaleak: Mendizaleei bideratuta dago, konkretuki mendian egun oso iraun nahi duten mendizaleak, haiek janaria eraman eta berotu behar dutelako. Noski beste irtenbideak dutela, sua egitea esate baterako baina oso zaila eta korapilatsuak da. Funtsean haien zatia gure produktua oso ondo etorriko zaie. Mendizaleak ez dira langileak bezain kopuru handia, hala ere, kontuan hartu behar dira, izan ere ikerketak aipatzen dute espainiarren %30k mendizaleak direla. Gure taperra edozein adin dituen mendizalei bideratuta dago.

Mikrouhinak erabiltzen ez duten pertsonak: Mikrouhina erabiltzen ez duten pertsonak beste irtenbideak bilatu behar dute janaria berotzeko baina irtenbide horiek gehienetan oso nekagarriak eta korapilatsuak dira, adibidez janaria labean berotzea. Horregatik, uste dute gure produktua arazo hori konpondu ahal duela, horrez gain, haien bizitza erraztuz. Gehigarri bezala haiek mikrouhinak ez dituzte erabiltzen uste dutelako, mikrouhina erabiltzerakoan uhinen bidez gaixotasunak (minbizia esate baterako) kutsatu ahal direla. Mikrouhin erabiltzen ez duten pertsonak gehienetan helduak dira.

Aipatutako bezeroak hobeto bereizteko taldeetan banatuko ditugu, konkretuki segmentuetan. Segmentu mota asko daude. Gure kasuan hurrengoak da:

Merkatu-nitxoa: Nitxoak ezaugarri komunak zehaztuta eta bereiztuta dituzten bezero-taldeak dira, lehen aipatutako adibideak bezala.

Beste alde batetik gure produktua estatu mailan eskainiko da, hau da, Espainian. Hori dela eta publizitate kanpaina (ondoren komentatuko dugu) Espainian bizi diren aipatutako nitxoei bideratuko da. Hala ere, hori ez du esan nahi etorkizunean ez gaita mundu-mailan zabalduko.